

✿ Hitz eta Pitz ✿

Joel Franz, Inongo -Vi- Makomé
eta Javi Cillero

Joel Franz eta Inongoren hitzak Jon Suarezek itzuli ditu

**El día
que murió
Maurice
Ravel**
hil zen
egunean



JOEL FRANZ ROSELL

(Cruces, Kuba, 1954). Idazle, ilustratzaile eta haur literaturaren kritikoa. Literatur Hispanikoan litzentziaduna. Kubako Kultura Ministeriorako lan egin du literatura-espezialista, irakasle eta liburuzain moduan. 1989. urtean La Habana utzi zuen, eta honako herri hauetan bizi izan da geroztik: Río de Janeiro, Kopenhage, Buenos Aires eta Paris, non bete-betean sartzen den sormen literarioan, irakurzaletasuna eta liburua sustatzeko egitasmotan.

Haren haur-literaturako lanak Kuban, Brasilen, Espainian, Frantzia, Argentinan, Mexikon eta Venezuelan argitaratu ditu. Ehun bat artikulua eta saiakera argitaratu ditu hiru kontinentetan; horietako bat: *La literatura infantil: un oficio de centauros y sirenas*.

Haren liburuek nazioartean zenbait sari jaso dituzte, eta itzuli izan dira: korearrara, euskarara, frantsesera, galizierara eta portugesezera.

JAVI CILLERO

Ikasketak: Kazetaritza eta Itzulpengintza. Doktoretza tesia egin du euskal nobela poliziakoaren eta nobela beltzaren historiari buruz (Renoko Unibertsitatea, Nevada, AEB). Hizkuntzak: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa. Lanak: euskaltegiko irakasle, Txomin Barullo irrati librean esatari, Renoko Euskal Mintegian itzultzaile, Genevan (Suitza) itzultzaile. Antzerki-lanak eta gidoiak idatzi ditu. Itzulpen zenbait egin ditu, literatura unibertsalekoak: Charles Dickens, Mark Twain, Francis Scott Fitzgerald, Raymond Chandler, Ross MacDonald, Roald Dahl.

INONGO -VI- MAKOMÉ

Inongo -Vi- Makomé. Lobé-Kribin (Kamerun) jaio zen. Medikuntza ikasketak hasi zituen, baina zenbait urte geroago utzi zion hura ikasteari, eta bete-betean murgildu zen literatura munduan.

Ipuin-kontalaria da, eta ia Espainia guztian kontatu ditu ipuinak, baita Frantzia, Ingalaterra eta Brasilen ere.

Hainbat komunikabiderekin lan egiten du, besteak beste, Bartzelonako *La Vanguardia*.

Ia genero guztiak jorratu ditu: saiakera, eleberria, antzerkia, ipuinak eta ipuin laburrak.



Nola ulertzen duzue kulturartekotasuna?

Inongo: Beti definitu izan dut kulturartekotasuna ezagutzen, jakintzen, jakinduriaren... elkartrukatzeko bat bezala. Gizakien arteko elkarrekintza. Literaturan duen eragina egundokoa da. Kontuan izan behar dugu gizakion e/imigrazioa ezaugarri komuna izan dela historian zehar. Batetik bestera, lekualdatze honekin, batzuetan borondatezkoa eta beste batzuetan uneko zirkunstantziak derrihortutakoa, ezagutza trukea ere eraman da.

Joel: Ez dago kultura pururik. Kultura oro esperientzia, sinbolo eta baloreen trukea da hain zuzen ere; hautaketa («hau hartu eta beste hau baztertu egiten dut»), asimilazioa («neuk asmatu nuen zera, eta ez auzoak») eta sedimentazioa.

Erabateko autarkian bizi izan ziren, agian, zenbait komunitate oso-oso isolatuak: inuitak, eremu izoztuen erdian, edo tribu amerindiar edo indonesiarren, oihan tropikal nahasian.

Guztiarekin ere, kulturartekotasuna kultura bi edo gehiagoren justaposizio hutsa baino gehiago da; elkar onartze eta ernalkuntza prozesuan bizikidetasun kontzientea da.

Kulturartekotasunaren oinarria da kultura horietako aktoreak izan daitezela gai beste kultura edo kulturen baloreak onartzeko, eta hauetatik elementuak har ditzatela berenaren funtsezko ezaugarriak galdu gabe. Ez da prozesu erraza eta nolabaiteko berdintasun ekonomiko, sozial eta politikoa dagoenean baino ez da osatzen. Aldi berean, bere kulturaz kontziente eta osasuntsuki

harro dagoen herria bakarrik ireki daiteke beste batzuetara, bestea mehatxu edo desafio bezala ikusiko ez duen herria.

Literaturak, jakina, parte hartzen du kulturarteko prozesuan, baina ez, adibidez, herri musikak edo gastronomiak bezain modu ageriko eta azkarrean. Literatura hizkuntza da, eta hizkuntza ez da komunikazio tresna bakarrik, erakunde sozial gehienek euskarri ere bada; hala, bere kontserbazio mekanismoak sendoagoak dira. Baina esperientziak ez ezik bestearen sentimenduak ere aurkezteko duen ahalmenagatik, bere ondorioak sarkorragoak eta konbentzigarriagoak izan daitezke.

Javi: Definizio batzuk irakurri ondoren, kulturartekotasunaren irudi lauso bat egiten zait: kulturen arteko harremani buruz mintzo da kulturartekotasunaren. Hau da, egungo gizartean dauden kultur ezberdinen arteko harremani buruz. Badirudi kontzeptu horren bidez azpimarratu nahi dela kultur guztien balioa eta presentzia, kultura hegemonikoak eta subordinatuak bereizi gabe. Dibertsitate kulturala, hain zuzen ere. Horren arabera, kultura guztiak errespetuz hartu behar dira eta haien artean sortzen diren harremanak landu.

Literaturan ere eragina izango du kulturartekotasunaren, gizartean bezainbeste. Kultura jakin batean bizi den pertsona batek lan literario bat sortzen duenean, hein batean kultura hori islatuko du. Testuinguru soziokultural batean bizi den pertsona batek egoera horren berri emango du bere lanetan, baina ez beti. Asimilazioa eta identitate galtzea ere hor daude, eta kontuan hartu behar dira kasuak banan-banan aztertzean. Azken batean, kultura identitateari lotuta dago, hau da, norberak daukan identitatea eta nola txertatuta dagoen testuinguru batean. Alde horretatik, kontuan hartzen dira kultura baten oinarrian dauden egiturak, balioak eta sinesmenak.

Atzerrian bizi izateak zein neurritan eragiten dizue zuek sorturiko literaturan? Sorterriko iturriei ura al darie, alegia, beraietatik edaten al duzue oraindik?

Inongo: Nire literatura mestizoa da, ezin bestela izan. Nirea ez den hizkuntzan idazten dut; baina hizkuntza horretan irakatsi zidaten irakurzen eta idazten. Hala, nire kulturako sustraiak erabiltzen ditut eta beste batzuen hizkuntzaren bidez, idazteko tresna dudana, komunikatu egiten naiz. Mestizaje osoa dela uste dut.

Joel: Nik esango nuke hain zuzen ere nire jaioterria utzi izanak eraman ninduela bere ezauzgarrietan sakontzera.

Emigratutako intelektual askori gertatzen zaio; baina bigarren herri batean finkatu ez izanak urrutze kritikoaren ondorioak areagotu ditu.

Brasilen bi urte eman nituen, Danimarkan hiru, ia sei Frantzian, lau baino gehiago Argentinan, eta Frantzian berriro lau bat urte daramatzat... Korrante kultural hain anitz eta indartsuek astinduta eta blaituta, gaztelanian finkatu nuen nire nortasunaren ardatza eta baita «Kubarekiko obsesioan» ere, eta honek nire herriaren lehenaldian eta orainaldian sakontzera eraman nau, han geratu izan banintz baino gehiago.

Haatik, nik ez dut «kuberaz» idazten, ez darabilt literatura kubatarrari datzekion forma estilistiko eta generikorik. Nire erreferentzia kulturalak izugarri dibertsifikatu dira, eta nire kezka politiko, sozial eta ekonomikoak nire herrikide mugiezinei eragiten dieten kezken oso ezberdinak dira.

Javi: Oso kontu korapilotsua da. Izan ere, atzerrian bizi izateak eragina dauka gure bizitzan eta hortik ere gure lanetan, dudarik gabe. Adibidez, beste kultura batean bizitzeak bestelako erritoak eta jokamoldeak ikastera behartzen gaitu. Aldi baten ondoren, geure egiten ditugu haietako batzuk eta beste batzuk errefuxatzen. Gure lanetan, berriz, denetarik gerta daiteke: aspaldiko garaiak eta lekuak berreskuratzea eta erabiltzea materiale



gisa, edota garai eta leku berrietako moduak eta gaiak hartzea. Nahasketa bat izan liteke eta ezin jakin aldez aurretik nolako emaitzak lortuko diren.

Bestalde, ohartxo bat egin beharko genuke: zer da atzerria? Zer da kultura? Eta batez ere, nola bereganatzen du pertsona batek kultura? Familiar, eskolan, lanean, gizarteko jardueretan? Interneten? Gaur egun, gero eta zailagoa da zehaztea zein osagarri behar diren kultura jakin baten partaidea izateko. Hizkuntza? Ohiturak? Janzkerak? Jokamoldeak? Balioak? Sinesmenak? Ziur nago denok dugula nabarduraren bat edo beste kultura jakin bati atxikita egotea galarazten diguna. Eta beste alde batetik ikusita, kultura bat baino gehiago eraman dezakegu gure baitan, gutxieneko osagarri batzuk kontuan hartzen badira: hizkuntza, jateko modua, erritoak, sinesmenak etabar.

Horregatik, tentsio horietatik sortzen den literatur lanak munduan egoteko modu bat islatuko du, eta mundu horri aurre egiteko erantzun mekanismo bat.

Kulturartekotasuna lantzen duten idazleen artean zeintzuk dituzue gustuko? Lanen bat aipatuko zenukete?

Inongo: Ezin izango nuke kulturartekotasunean lan egiten duten egile jakinik aipatu. Egingo banu, ziurrenik ez nintzateke zuzena izango.

Uste dut jende konprometitu asko dagoela, baita erakunde eta agintariak ere... Badakit askok ahalegin handia egiten dutela horretarako. Beraz, horietako bakar batzuk aipatzea ez litzateke zintzoa izango nire aldetik. Egin dezakedana, uzten badidazue, kulturartekotasunean sinesten duten eta posible izan dadin lanean diharduten guztiak zoriondu eta animatzea da.

Joel: Ez dut kulturarteko egileen errepertorio-rik. Zenbait herritan bizi izan naiz, lau hizkuntzaren inperiopean, eta bost hizkuntzatan irakurtzen dut; Parisen, auzune oso kulturartekoan bizi naiz; herrialde anitzetan argitaratzeko idazten dut –baita gaztelaniazko lanekin ere–, eta kontuan hartzen dut... Kultura eta garai guztiak interesatzen zaizkit, baina ez dira liburu kulturartekoak, «jatorrizkoak» baizik, kubatar trantsumante eta unibertsalista honen kulturartekotasun egoera osatzen dutenak.

Liburu kulturartekoetan pentsatzen dudanean, gustuko ditudan bi tebeo datozkit burura: *Persépolis*, Marjane Satrapi-rena, eta *El gato del rabino*, Joann Sfar-ena. Hauen kulturartekotasuna elikagarriagoa iruditzen zait genero mestizoan –literatura, marrazkia eta zinema– ematen direlako hain zuzen ere, eta beren mezu, forma eta plano erreferentzialean zenbait kultura gainjartzen direlako.

Haur eta Gazte Literaturan zenbait lan jorratzen dira modaren arabera. Adibide bat jartzearen, anorexia. Eta bat-batean, gai hori lantzen duten berrogei liburu topa ditzakezu liburudendetan. Kulturartekotasuna modako gauzatat jotzen duzue ala zerbait gehixeago da zuen ustez?

Inongo: Bai, moda horietaz kontziente naiz. «La Emigración negra africana...» idatzi nuenen, nik gizaki beltzaren eta gizaki zuriaren denboraren bi kontzeptuak deitzen dudana aztertu nuen. Han, azaltzen nuen mendebaldeko gizarte hau beti doala presaka eta modatik bizi dela. Tupustean gauza bat zera da... eta mundu guztiak hartu behar du zeratzat. Baina guri dago-kigun honetan, ez dut uste hala doanik kontua. Mundua txikia egin baitzaigu edo guk, gizakiok, txikitu egin baitugu distantziak laburtuz. Hauek gero eta gehiago murriztuko dira eta, ondorioz, pertsonak batetik bestera aldatzea erraztuko da. Honek, logikoa denez, beti sortaraziko ditu gatazka txiki edo handiak. Kulturartekotasunaren alde lan egitea, hots, pertsona ezberdinen arteko harreman onaren alde lan egitea, beti izango da beharrezkoa. Beraz, moda bat baldin bada, ez da behintzat moda labur eta iragankorra izango.


Joel: Kulturartekotasuna, beste edozein gai bezala, moda bezala landua izan daiteke eta horri dagokion azalderiaz. Baina gizarte garaikideko osagai funtsezko bat denez, gelditzeko iritsi den

zerbait da... transkulturazioa eman dadin arte; hots, emaitza bezala kultura berri bat emango duen mestizajea: heterogeneoa, aberatsagoa, positiboki kontraesankorra eta unibertetsala.

Modan dagoelako kulturartekotasuna lantzen duten liburuak azkar izango dira ahaztuak; presaka egindako liburuak, gaia puri-purian dagoelako egindakoak edo eztabaida ideologiko batean parte hartzeagatik idatzitakoak ahazten diren bezala. Egiazki kulturartekoak diren liburuak, kulturartekotasuna bere egituran daramatenak, hitzezko odolean, horiek bai, ondare literariora gehituko dira, aberastu eta aldatu egingo dute ondarea.

Javi: Moda bat izan liteke, baldin eta «kulturartekotasuna» etiketa bihurtzen bada (dagoeneko bihurtuta ez badago). Hau da, kiroleko nobelak, abenturako nobelak, izu-ikarazko nobelak eta generoko nobelak bezala onartzen bada kulturartekotasun kategorია badagoela, orduan klitxe bat izango litzateke.

Halere, ikusi besterik ez dago zer dagoen gure inguruan eta orduan konturatuko gara kulturartekotasunak erroak bota dituela gure munduan eta ez dela egun batetik bestera joango. Anorexiari buruzko liburuak, adibidez, oso enfokatuta daude tematikoki eta erraz bereizten da gaia. kulturartekotasuna, ordea, ez da hain erraz bereizten kontakizun baten oinarritzat.



Nik esango nuke kulturartekotasuna giro baten islada dela, hau da, gure hiri eta herrietako paisajea zipristintzen duen osagarri bat. Beraz, pertsonajeak giro horretan murgilduz gero, beti izango da zeozer kontakizunean horretaz gogorarazten diguna. Baina oso helburu abstraktua iruditzen zait «kulturartekotasuna» nobela bat edo definitzeko: «bai, kulturartekotasunari buruzko lan bat da». Ez dirudi oso etiketa ona denik saltzeko, ezta? Edo beharbada, bai, argialetxeek jakingo dute.

Adituek diotenez, kulturartekotasunaren kontu horretan, espiritu irekia behar da 'harresiaren espiritu' deitzen dutena gainditzeko. Literaturak izan al dezake horretan eraginik? Egiten diren ahaleginetan ez al da politikoki zuzenaren kutsu hori antzematen?

Inongo: Begira, kulturartekotasuna ezagutzak trukatzea dela esan dut. Truke honetan dago lagun hurkoa ezagutzen ahalegintzea. Ulertu ahal izateko ezagutzea. Baina honek ez du inolaz ere suposatzen onartzea norberak derrigorrez izan behar duenik lagun hurko hori den bezalakoa. Uler-tu, adibidez, zergatik pertsona talde jakin batek horrela edo bestela jokatzeko duen bere tradizioen barruan, eta ez guk bezala... Hau lehen urrats bat da. Honekin harresiaren itxikeria hausten da: bestea ulertzen saiatzea. Eta horretan, literatura ez ezik ahalegin horretan aritzen diren beste jarduera guztiak ere, beharrezkoak dira eta zerbait egin ahal edo behar dute. Badakit ezer ere egiten ez denaren sentazioa dagoela, baina nik baietz uste dut. Ari gara gauzak lortzen. Zuhurtziaren barruan, baikor izan beharra dago. Ni banaiz.

Joel: Nire ustez bizi eta irudikatze modu ezberdinen artean dago kulturartekotasuna, adierazteko modu ezberdinen artean, eta askoz ere gutxiago mendebaldeko irakurleei emigrante baten abenturak kontatzen dizkien nobela –oso mendebaldar– baten argumentuan.

Gerta daiteke espaloietan CD-ak saltzen dituzten larru beltzeko gizonak Espainiara nola iritsi ziren nobela batean deskubritu duen gazte bat errukia eta tolerantzia sentitzera iritsi ahal izatea. Baina pertsona horiek benetan ulertu, errespetatu eta maita ditzan, gazte horrek jakin behar du, ez bakarrik Europara etortzeko beltz horiek bizi izan dituzten arriskuak eta gure artean zein baldintza zailetan egokitzen diren; gure adibideko gazte horrek jakin behar du baita ere zer kultura dagoen emigranteen atzean, zer aberastasun espiritualek apaintzen duen bere txirotasun materiala, zerk eragiten dien barrea eta negarra, zer amesten duten eta nori egiten dioten otoitz, zer musika kantatzen eta dantzatzen duten, zer jan eta edaten duten, edo zer ez... Eta horraino iristeko, ezinbestekoa da herri horietako –zeinetako piltzar etsiak gure hirietara edo Valentzia, Murtzia eta Andaluziako «plastikozko itsasoetara» iristen diren– ordezkari onenen ahotsa irakurle gazte horri helaraztea.

Emigranteen abentura (eta batez ere zoritxarra) ezagutzera emateaz hain arduratuta egon beharrean, argitaratzaileek eskaini beharko ligukete munduko kultur aniztasun osoa dokumentalen, ipuin tradizionalen eta, batez ere, biztanleria aktiboaren zati batez aberasten gaituzten herrietako gazte eta haurrentzako liburu garaikideen bidez.

Iruditzen zait idazle magrebtarrak modan daudela Espainian; helduentzako literaturan eta gazteentzako literaturan haur literaturan baino gehiago. Haatik, emigratio hispanoamerikar hain garrantzitsu hori, zuzen ordezkaturata al dago haur eta gazteentzako edizioan? Zenbat idazle ekuador-tar, dominikar edo perutar izan dira argitaratuak Espainian? Aspaldidanik Espainian bizi denen bat baino ez da nabarmentzen. Bestela, norik daki, bada, Ekuadorren, Dominikar Errepublikan edo Perun haur literatura badagoenik ere?

Espainian literatura iberoamerikar oso gutxi argitaratzeaz gain, ez dira Hispanoamerikan argitaratutako izenburuak inportatzen. Badakit



Alfaguara edo SM bezalako enpresa transnazi-
onalek politika bezala dutela Espainiara ez ekartzea
beren sukurtsal latinoamerikarretako ekoizpena.
Are larriagoa: jatorriz Espainian argitaratutako
egile latinoamerikarren liburu ez gutxi itsasoz
bestaldeko katalogoetara lekualdatu izan dira.
Eta ez du ezerk justifikatzen idazle kolonbiar bat
interesgarriagoa edo ulergarriagoa izan daitekeen-
ik gazte mexikar batentzat espainiar batentzat
baino. Argudio nagusia da itsasoz bestaldeko gaz-
telaniazko liburuak ez lireratekeela ulergarri izango
gazte espainiarrentzat, edo liburu haiek dituzten
erreferentzia kulturalak ez lituzketela ezagutu edo
ulertuko irakurle gazte iberiarrek.

Baina orduan, zer gertatu da kulturartekotasu-
narekiko interesarekin? Zenbait hitz, bizimodu,
kultura materialeko elementu eta data eta izen
historiko batzuk (ziurrenik ez lehertzeko bezain

egoki integratuak traman) ulertezin eta beste-
rentzat hartzen hasten bagara, nola nahi izango
ditugu gure haurrak tolerantzian eta desberdina
denarekiko sentiberatasunean hezi?

Javi: Lehen esan bezala, oso printzipio abstrak-
tua iruditzen zait «kulturartekotasuna» literaturari
aplikatzeko. Iruditzen zait pisu handiagoa behar
duela printzipio horrek hezkuntzan, adibidez, edo
gizarte antolamenduan. Bestalde, ados nago espi-
ritu irekia behar dela harresi guztiak gainditzeko,
baina horrek ez du zerikusirik lan literarioaren
emaitzarekin. Hau da, pertsonaia guztiak «onak»
eta «zintzoak» edota balorez beterikoak izan behar
badira, prezeptiba liburu bat izango dugu esku
artean. Oso txalogarria, funtsean, baina literatur
lanarekin harreman gutxi daukana.

Literatura noraino erabili da ideiak zabaltzeko? Zenbaitetan ez ote garen panfletoen menpe jartzen...

Inongo: Literatura giltzetako bat da. Giltza asko egon daitezke, baina literatura horietako bat da. Nik ipuinlari bezala definitzen dut beti neure burua. Hau da, ipuin tradizionalen aztertzaille xume, ipuin sortzaile eta narratzaile. Niretzat, nobela idatzi, saiakera idatzi, antzezlan idatzi... , ipuin bat da beti. Gure ipuin tradizioaletatik ikasi dut. Nobelak, saiakerak, filosofia-, etika-, historia- eskuliburuak, ... dira. Atzoko eta gaurko literatura horretan, beti aurkitzen da justizia eta aditzearen aldeko giza borroka eta deia. Gaurko gure literaturak ez du agertzen gure arbasoenak probatzen ez zuenik. Guk gaur askatasun pixkat gehiago dugula ez bada... Haiek, berriz, gehiago oinarritu beharra zuten sinbolismoan eta metaforan beren mezuak transmititzeko.

Joel: Pertsonalki, gutxiago interesatzen zait nire inguruko gazteei –Frantzia edo Espainian– emigranteen bizitza kontatzea, larru beltz edo horiko, kultu musulman edo budistako, azentu edo ohitura ezezaguneko... pertsona horiek funtsean beren, gure, berdinak direla azaltzea baino.



Susmoa dut nire albumetako baten ilustrazioak lehenbizikoz egitea erabaki banuen, kulturartekotasun mezu subliminal bat sartu nahi nuelako izan zela. *La canción del castillo de arena* laneko trama «unibertsala» da: ume batek eta bere aitak hareazko gazteluak eraikitzen dituzte eta itsasoak gauero desegiten ditu umearen irmotasuna eta irudimena probatuz. Mezurik hautemangarriena filosofikoa eta ekologikoa da; baina pertsonaiak «exotikoak» dira: aita beltza da eta haurra mestizoa, beraz, haur protagonistaren gazteluetan bizi den Caracola Printzesa bezain zuria izango da ama, baina testuak ez du hori gogorarazten eta ilustrazioetan ez da ageri. Iradokitzen dudana da «koloreko jendea» ez dela mendebaleko edizioetan eman ohi zaion gaietan bakarrik protagonista: emigrazioa, arraza diskriminazioa, txirotasuna, naturarekiko elkar ulertzea, familia ugaria edo ahozko tradizioak. Nire ipuinak iradokitzen du haur «etnikoek» beste edozein haurren esperientzia komunak bizi dituztela: zeloak dituzte, iluntasunari beldurra, ohea «bustitzen» dute, garbiketarako giza arau oinarrizkoak ikasten dituzte, maskota bat nahi dute... Eta nire irakurle oso gazteak ez badira mezu honetaz jabetzen, are eta hobe, kanalizazioa baita asimilazio modurik onena.

Nire ustez, literaturan ideiak transmititzeko era bidezko bakarra da horiei jakina den guztia eranstea. Literatur testu bat «erabili» nahi deanean, literatur testu izateari uzten dio eta beste zerbait bihurtzen da, infinituki arruntagoa eta iragankorragoa.

«Arrosa zergatirik gabe da»; Angelus Silesius-ek hala esan zuela gogorarazten digu Borgesek.

Javi: Ideia bat zabaltzeko soilik idazten badugu, hau da, oroz gain, ideia bat sustatzeko idazten badugu, eraginkorragoa litzateke alor jakin batzuk jorratzea: kazetaritzako artikulua, entsaioa, etabar. Nire ustez, narrazioa baino eraginkorragoak izan litezke genero horiek. Narrazioan, adibidez, ezin dira parrafoak bete ideien bidez bakarrik –nahiz

eta gaur egun nobela filosofikoak eta generoen arteko intertestualitatea modan egon.

Azken batean, oso paradójikoa da literatura: ados egon gaitzke kontu bati buruz, baina kontuaren alde aukeratu den espresabidearen kontra. Nolanahi ere, generoen arteko nahasketa puri-purian dago eta irtenbide bat izan liteke zenbait kezka plazaratzeko, narrazio huts baten orde. Ez da ahaztu behar, haatik, literaturan ere ideiak zabaltzen direla, nahitaez.

Europar asko dira jatorri ezberdinetatik heldu direnak, bertan egokitu, eta bertako hizkuntzetan idazten duten idazleak –Rafick Schami, Tahar Ben-Jelloun...–; Euskal Herrian oraindik ez da halakorik, ez bada ipuin kontalari bakanen baten kasua. Zerbaiten sintoma iruditzen al zaizue? Uste al duzue etorkinen seme-alabak aire berririk ekarriko ditugutela? Aire hori jaso nahi dugula?

Inongo: Utzi denborari. Lurralde horietan jaio eta hazten diren inmigrante seme-alabek beren hizkuntzatan idatziko dutenaren inolako zalantzarik ez dut. Nire azken liburuan –*Población negra en Europa, nacionales de ninguna nación*–, hori nabarmentzen dut. Inmigrante beltz afrikarren semeak animatzen ditut benetan integra daitezten. Ahal duten guztia nahi izan dezatela. Ikur ezberdinetako alderdi politikoetan milita dezatela, hemen baitaude eta hemengoak baitira. Horrekin doa halaber bizi diren nazioko edozein hizkuntza nazionaletan idatzi nahia. Eta nazio badiot, autonomia erkidego edo dena delakoa esaten ari naiz. Diodana indartzeko, duela gutxi, jatorri magrebtarreko neska batek katalanez idatzitako nobela sari bat irabazi berri du. Berri ona da.

Joel: *Beur* (emigrante arabiar-magrebtarren ondorengoak Frantzia) literaturari buruzko azterketa labor batean, Alec Hargreaves-ek azpimarratzen du: «emigranteen lehenengo belaunaldia bizitza aktiboaren arazoetaz arduratzen zen batez ere. Haien seme-alabengan eskolaratze eta famili



bizitzako arazoak gailentzeko joera dago. Nerabe frantziar askok bizi duten nortasun krisia, *beur*-ei dagokienean, krisi kulturalak lagunduta dator. Aldi berean jatorrizko kulturak eta kultura frantsesak erakarriak, inmigratortik datozen gazteen esperientziak mingarri bezain interesgarri dira narratzeko gai bezala».¹

Populazio frantziarraren sektore hau 1980ko urteetan hasi zen kontuan hartua izaten eta gaur literatura frantsesean zati garrantzitsu eta banaezina da, haur eta gazte literatura barne. Hasieran ikasketa kontaketak izan ziren nagusiki (Bildungsroman), autoikasketa kontaketak; eta, autobiografikotik askatzen laster hasi ziren arren, egiarekiko loturak ematen die testu horiei balio bat ez dudana aurkitzen kanpotik problematika kulturartekoak narratzen dituzten hainbeste nobelatan.

Emigranteak Euskadi, Katalunia edo beste edozein autonomia erkidegoko errealitatetan integratzen joango diren neurrian, biziraupenaren larrialdia gaindituko duten neurrian, idazle ezin hobeki kulturabidun bihurtuko dira. Eta idazle eta ilustratzaile frantziar asko eta asko magrebtarrak, libanoarrak, turkiarrak, Sahara azpikoak, vietnamdarrak edo txinatarrak ere badiren



bezalatsu, Mediterranioko beste aldeko jatorria duten espainiarrak ere izango dira. Guraso edo aitona-amona emigranteen nortasuna galdu gabe errealitate espainiarrean integratu den bigarren edo hirugarren belaunaldi bat izango dira, eta literatura eta arte kulturartekoak ekoiztuko dituzte, eta kultura aniztunak gero.

Frantzia badira gaur forma argiro mestizoak, hala hizkuntzaren berezitasunengatik nola bere forma generikoengatik –*slam* izenez ezagutzen den poesia erritmikoa da adibiderik argiena–, esperientziak ez ezik adierazpide bereziak ere agerian uzten dituztenak.

Bestalde, beste herrialde batzuetan sustraiak izan gabe ere, idazle espainiarrak aberats daitezke

kanpoko elementuez, musika herrikoi europarrean rocka eta reggaea, balada eta boleroa, popa eta salsa nahasten diren era berean.

Javi: Lehenik eta behin, esan behar da euskara ez dela inoiz izan hizkuntza hegemoniko bat inguruko hizkuntzen aldean (Historiatik dakigunez). Horregatik, bada, Euskal Herrira etorri diren etorkinek ez dute (orain arte) euskara ikasi behar izan, salbuespenak salbu. Baina etorri ere, aspalditik etorri izan dira etorkinak Euskal Herrira, eta zilegi da pentsatzea beste kultura bat zekartela eurekin. Kontua da jakitea zein hizkuntzatan adierazten zuten euren egoera eta euren kezkek. Eta hizkuntza hori ez zen euskara.

Bestalde, bitxia da nola euskaldunak kanpora irten diren eta beste hizkuntzetan espresatu diren: gazteleraz, frantsesez eta ingelesez (ikus Robert Laxalten kasua, adibidez).

Oraindik ez dugu Schami edo Ben-Jelloun bat euskaraz, baina horrek ez nau harritzen. Izan ere, oker ez banago Espanian bertan ere ez dago gauza handirik alde horretatik, ezta? Eta gure sistema literarioa Espaniako sistema literarioari konektatuta dago, Frantziako sistema literarioa guztiz periferikoa dugulako, gure ikuspuntutik begiratuta.

Azken batean, lehen esan bezala, euskara ez da hizkuntza hegemonikoa eta helduek (kanpotik etorritakoek zein Euskal Herrian bertan betidanik bizi direnek) ez dute sentitzen beharrezkoa, profitagarria, prestigiozkoa edo dibertigarria denik euskaraz aritzea.

Gure belaunaldi bateko idazle batzuk testuinguru interkultural batean jaiok gara. Hau da, ez dugu euskaraz ikasi txikitari, familian, baizik eta ikastolan eta euskaltegietan. Ez dakit zenbateraino

eragingo zigun horrek, baina ziur nago ez dugula euskaldun peto-petoez esperientzia berbera izan. Batez ere, testuinguru soziologikoa eta kulturala oso bestelakoa izanda, euskal testuinguru huts baten aldean.

Bestalde, azken urteotan ikusi dugu fenomeno interesgarri bat, bertsolaritzatik hasita. Badaude hor etorkin familiako bertsolari ezagunak, eta euren lana euskaraz egiten dute. Ikusteko dago zein neurritan adierazten duten euren bizi esperientzia, etorkin familia eta kultura batean sortuta. Alde horretatik, batzuk literaturan murgildu dira, eta bigarren belaunaldiko etorkinen esperientziaren berri eman dute, era nobelatuan, adibidez.

Ziur nago hemendik urte gutxira milurte inguruko etorkin berrien seme-alabek lan ederrak idatziko dituztela, euskaraz eskolatuta badaude. Orduan jarriko dira auzian orain arte normaltzat ematen ditugun hainbat joera eta jokaera. Egia esan, irrikan nago halako lanak irakurtzeko, zeren uste dut pertsona askoren ahotsak isilik daudela une honetan euskal gizartean.



Diotenez, Arabako Errioxara mahatsa biltzera datozen ijito espainiarrek mendean hartu ahal izaten dituzte ijito portugaldarrak. Gizakiaren patua ote da beti norbait azpiratu nahi izatea?

Inongo: Hala da. Sarritan definitu izan dut arrazismoa txiroaren eta ahularen zoritxarra bezala une eta leku... Eta hala da larruaren koloreak axola gabe... Espainiara iritsi nintzenean, Katalunian mesprezatutako inmigranteak Andaluzia, Extremadura, eta abarretik iritsitako inmigranteak ziren. «Charnegos» deiturikoak. Horiek baino txiroago batzuk heldu zirenean, haiek laster igo ziren kategoriaz, jatorria ahaztu zuten eta iritsi berriak mesprezatu dituzte. Lurralde suitzar, frantsez, alemaniar eta abarretan espainiar eta portugaldarrek jasandako mesprezua ikusteko beste bizi izan naiz. Gizakiaren madarikazioa da, gure madarikazioa. Gure lotsa. Ez da arraza kontua, gizaki kontua baizik. Gogorarazi beharra dut Amerikako esklabo beltz aspaldiko haiek, Afrikara joan zirenean, itzulera operazio hartan, Liberia, Sierra Leona... bezalako herrialdeetara iritsi zirenek errukirik gabe bihurtu zituztela esklabo aurkitu zituzten bertako beltzak. Lotsa ematen duten egiak dira...

Joel: Ez dago inor bidegabekeriak egitetik libre. Arrazakeriaren, marjinazioaren, eskubide urraketa biktima izatea tolerantzia, anaitasuna eta demokrazia irakasteko modurik txarrena da. Letra ez bada odolez sartzen, are gutxiago justizia. Irakurketa ereduak eskaintzea ere ez da nahikoa jokabide ereduak eragiteko. Etengabeko zaintzak, autokritikak eta norberaren eta besteen kulturarako sarbideak bakarrik hezi gaitzake besteekiko errespetuan eta eraman Giza Eskubideen erreinura.

Itzuli berria dute Abdela Taia gazte marokoarraren *Salbazioko armada* nobela gordina. Suitzan, Genevan, kokatzen da eta protagonista hor ohartzen da etorkinak hartu-erabili-bota egiteko erabiltzen diren



maitale, langile edo mirabe direla. Nolakoa iruditzen zaizue, zentzu horretan, Mendebaldearen jokabidea? (Suitza edo, batez ere, Austriaren kasua aipa liteke: errealitatea, egunerokotasuna).

Inongo: Gorago azaldutako kontu bera da honako hau ere. Gizakiok arazo bat daukagu. Ni bezalako batzuk beste jakinduria bat deitzen dudanaren bila etorri ginen Mendebaldera. Zerbait aurkituko genuelakoan..., ez dakit bada, gizakiaren perfekzioa edo, gauza bera dena, perfekzio hori lortzeko borroka; baina hemen ere, Mendebaldean, ez dago bide hori. Ondasun materialak lortzean datza perfekzioa eta, hori lortzeko borroka, bidenabar esan dezadan, gizakiaren basapizti zati hura, gaiztakeria iraunkorrera kondentatzen duena, areagotu baino ez du egiten.

Joel: Ez dut nobela hori ezagutzen, baina egi-leak salatzen duena beti eta leku guztietan gertatu izan da. Mende hasieran, goi mailako suitzarrek edo kanto nagusietakoek beste suitzar batzuk, edo italiarrak, edo espainiar eta portugaldarrak erabili eta botatzen zituzten. Eta Austriak gauza bera egin zuen antzinako bere Inperioko hainbat herrirekin, hego eta ekialdean.

Baina, zenbat marokoarrek ez du errespeturik gabeko era berean jokatzen sahararrek? Zenbat

azal zuriko mauritaniarrek ez du baztertu eta esplotatzen mauritaniar beltzik? Zein da esku lan indo-pakistandarraren egoera izugarria Arabiar Emirerrietan? Berdintasunaren eta bestearekiko errespetuaren –ahulena, txiroena, gutxiago heziarenarekikoa– aldeko borroka giza espeziearen Eginkizuna da, makakoen espezie eboluzionatuenaren eskuzabaltasunaren benetako xedea.

Javi: Adituen arabera, gizarte kapitalista klasiakoan merkatuak agintzen du nork zer rol jokatu behar duen eta ez da harritzekoa kategoria horiek sortzea. Maitale/langile/mirabeen rola gizarte guztietan bizi diren etorkinek bete(tzen) dituzte. Euskal Herrian bertan ere ikusi beharko genuke nola banatu diren rola eta zein kategoriatan dagoen bakoitza.

Mendebaldearen jokabidea bere patioan zaintzekoa da, jakina, baina oso erraza da «kultura» bat demonizatzea. Izan ere, beste herrialde batzuetara joanda ere, kategoria berdinak ikusten ditugu: beste etorkin batzuek betetzen dituzte rol horiek. Adibidez, Hong Kongeko klubetan dabilzan Filipinetako neskek, Qatarreko hotelak eraikitzen ari diren India, Pakistango eta Sri Lankako langileak eta Malasiako supermerkatuetan

lanean ari diren etorkinak, Nepal, Indonesia eta beste herrialde batzuetatik datozenak.

Eta ez ahaztu Euskal Herrian bizi diren etorkinak. Ziur nago haien esperientziak ere gazi-goxoak direla eta oso argigarriak, baina nork jarriko ditu paperean?

Suitza bezalako herrietan ematen den ‘hizkuntzaniztasuna’ nahikoa al da kulturartekotasuna bermatzeko? Zentzu horretan, itzulpenak badu bete beharrik horrelako herrietan ala ez?

Inongo: Hizkuntzaniztasuna garrantzitsua da, baina ez du berez kulturartekotasuna bermatzen. Hizkuntzen arazoa balitz, askok ez bailukete arazorik izango izaten ari diren lekuetan. Beste mekanismo batzuk behar dira. Hesi kulturalak hautsi behar dituzten mekanismoak.



Uste dut itzulpenak baduela zentzua ulertzen ez dutenek jakin dezaten eztabaida zertan den. Uste dut beti izango dela garrantzitsua. Baina aldi berean ez da alde batera utzi behar eragitea egile guztiek gozatu ahal izan dezaten herrialde bakoitzeko hizkuntzak ulertu eta erabiltzeaz. Nire iritzi apala da, jakina.

Joel: Uste dut Suitzan hitzun germaniarren gehingoak ez dituela oro har beste hizkuntza ofizialak erabiltzen: frantsesa, italiera eta erre-torromaniera. Suitzar guztiak izango balira elea-niztunak, ez diren gizarte ideala izango lirake, eta beharbada gehiago errespetatuko lituzkete emigrante ez europarrak. Baina –zilegi bekit *boutade*-a– jende hain bertutetsua ezin izango litzateke mundu mailako banku-potentzia izan, eta herrialde *neutrala* desagertu egingo litzateke.

Belgikarrak ere ez dira denak frantses-nederlandera-aleman hirueledunak, eta kanadar guztiek ere ez dute frantsesez eta ingelesez hitz egiten.

Herrialde afrikar asko dago non jende gehienak hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten duen: aspaldiko metropoliaren frantsesa edo ingelesa, kultura eta pasaporte hizkuntza izaten jarraitzen





duena, eta nazionalitate bera duten hainbat komunitate etnikoren hizkuntzetako bat baino gehiago. Ikuspuntu horretatik, herrialde horiek Suitza baino eredu-garriagoak lirateke hizkuntz demokraziari dagokionean. Baina oraindik integrazio nazionala gauzatzeke dute eta artean ez dituzte egitura demokratiko egiazko, eraginkor eta egonkorak, ezta kulturarako sarbide orokorturik ere, kultura idatzitik hasita.

Era berean, tamalgarria da, adibidez, perutarrek, paraguaitarrek edo guatemalarrak nahiago izatea ingelesa ikastea gutxiengo indigena kopurutsuak hitz egiten duen kitxua, aimara edo maia ikastea baino.

Beraz, itzulpengintza beti da eta izango da beharrezkoa.

Javi: Esan beharra dago Suitzan lau hizkuntza daudela lehian, edo elkarbizitzan, oso ondo ez dakigu nola. Itzulpenak erraztu beharko lituzke harremanak, baina errealitatean oso banatuta daude alorrak. Suitzar askok bizpahiru hizkuntza hitz egiten dute, baina horrek ez du esan nahi kulturen arteko harremanak oso biziak eta eraginkorrak direnik.

Interkulturalismoari dagokionez, esan beharra dago Genevan, adibidez, 100tik gora hizkuntza mintzatuko direla egunero, baina ofizialtasuna daukaten bakarrak Suitzakoak direla. Eta dendetan eta zerbitzuetan, adibidez, frantsesez mintzatzera behartuta dagoela jendea (edota ingelesez, harreman komertzialetan, adibidez).

Dena den, Suitzako sistema politikoan boterea oso banatuta dago eta koalizioetan bermatzen da. Beraz, elkarrekin hitz egitera behartuta daude partehartzaile guztiak eta elkarren ideiak eta ikuspuntuak errespetatzera. Horrek ez du esan nahi, bestalde, partehartzaile guztiak besten ideiak eta ikuspuntuak errespetatzeko asmorik dutenik, askotan kontrakoa gertatzen da.

Esango nuke bideak jorratu behar direla kulturartekotasuna bermatzeko, perstonari aberastasuna dakarkion aldetik. Hizkuntzaniztasuna baliabide bat da horretarako. Batez ere, nor bere gogoan nola sentitzen dituen eta nola bizitzen dituen hizkuntzak, horixe da kontua. Bere egiten baditu inoren hizkuntzak, errazago egingo zaio inoren kulturen murgiltzea eta etekinik ateratzea (azken batean, denok ateratzen dugu etekina kulturatik).

Bada esaten duenik gaur egun argialetxeetan eta eskoletan gehiago interesatzen zaiela zer nola baino; hots, mezua, idazkera baino, eta horrek literaturaren pobretzea dakarrela. Ados al zaudete?

Inongo: Beno, bada hortik zerbait. Ez dezagun ahantz argialetxeak negozioak direla, eta irabazi beharra dute aurrera egiteko. Baina guztiarekin ere, badago jende tematia, gogoak ematen diona eta bere modura idazten duena, moden kontua bost axola zaiona. Badakit halako jendea badagoe-la egon, argitaratzen ez bazaie ere. Horrexegatik dakit literatura pobretzen bada ere, aurrera egingo duela... Denborarekin, etorkizuneko belaunaldiek zuzenduko dituzte akatsak.

Joel: Ikaragarritzko egia da. Gaiari eta mezuari lehenetasuna ematea bilbearen koherentzia eta trinkotasunaren ginetik, pertsonaien kalitatea eta estiloaren dirdiraren ginetik, argialetxe, irakasle eta liburuzainek ez ezik, kritikari gehienek ere egiten dute. Eta ez kulturartekotasuna eta beste «zehir lerro» batzuekiko bakarrik. Argitaratu diren liburu asko –salmenta eta kritika arrakasta handia izan dutenak gainera–, sozialki beharrezkoa den gaia dutelako baino ez dira baloratuak izan edo –zinikokiago– «saldu» egiten dutelako. Garaipen pirrikoak...

Zenbat eta garrantzitsuagoa izan gaia, orduan

eta zorrotasun gehiagoz landu behar da. Kanti-tateak ezin du kalitatea ordezkatu, gaurkotasanak edo konpromisoak ordezkatu ezin duten bezala sakontasuna eta egiazkotasuna. Hau da, aporia bat parafraseatuz: hitz on batek gehiago balio du mila hitz... hutsek baino.

Liburu onak behar ditugu, burmuin eta bi-hotzez idatzitakoak –literaturan sartzean Nicolás Guillén-ek agindu zuen bezala–, kulturarteko liburu onak, liburu monokultural onak, liburu onak.

Javi: Ez dakit zer interesatzen zaien argialetxei eta eskolei, egia esan.

Susmatzen dut, halere, kultur industriako parametroetatik ikusita, batez ere produktuaren ezaugarri «salgarri» erreparatzen zaiela marketing eta banaketaren ikuspuntutik. Industriari beti gustatzen zaio produktua ondo paketatuta eta etiketa erakargarriaz hornituta aurkeztea. Alde horretatik, mezua esaldi batez laburbiltzen bada, produktua salgarriagoa da. Eta idazkera korapilorik gabea izanez gero, hainbat hobeto.

Egoera hori irentsiezina izan liteke, kultura zeozer sakratutzat dutenentzat, baina mesede egin ahal dio euskarazko kultur produktuei. Kontua da jakitea ea literatura (ona) egin daitekeen premisa horiek erabiliz. Arazo hori gainditzen duen idaz-



lea, hau da, baliabide zehatz horiek erabiliz (mezu argiak, korapilorik gabeko idazkera) kalitate oneko literatura sortzen asmatzen duena herrikoia eta arrakastatsua izango da, merezimendu osoz. Baina uste nuen horrelako zerbait egin dutela jadanik euskal idazleek, ezta?

Bukatzeko, irakurri al duzue libururen bat 'begiak ireki' dizkizuen beste errealitate batzuetan murgiltzeko? Zein liburu izan da hori?

Inongo: Bai, Albert Camusen liburuzalea naiz, eta filosofia existentzialzalea oro har. Beti deitu izan ditut «nire maisuak iluntasunean». Gainera, badira liburuak idatzi gabekoak, baina narratuak, gure ahozko literatura eratzen dutenak. «Gure eskuliburu tradizionalak» deitzen ditudanak. Gure ipuinak, mitoak, kondairak, eta abar. Horiek dira nire lehen maisuak...

Joel: Erantzuteko oso zaila den galdera da. Zenbat liburuk ez dizkit atea ireki mundu gutxi edo batere ez ezagutuetara? Eta alderantziz, bizitzako zenbat egoerak edo beste esperientzia estetikorik (zinema, museoa, musika) ez ote nau eraman liburuetan gehiago bilatzera?

Nire hiztegi ugarietara edo Parisko liburutegi sare bikaineoetara jotzeko ohitura dut gaurkotasanak ezagutarazten edo gogorarazten didana baino informazio gehiagoren bila (pertsonek politiko sozialak, arte edo zientzia mundukoak, hiri eta herrialdeak, animalia edo landareak).

Edda eskandinaviar liluragarriak irakurri banituen, Danimarkan bizi izan nintzelako da; *Gilgamesh-en epopeia*-n sartu banintzen, Abed Azrié-ren poema zoragarriaren zatiak kantatzen entzun nuelako da; antzinako egiptoarrei buruz irakurtzen hilabeteak eman banituen, Pariseko Grand Palais-en izan zen «Alexandriako altxor ezkutuak» erakusketa ikusi nuelako izan zen (eta Antzinako Egipton kokatutako nobela

bat idazten ari zen lagun baten galderei erantzuteko). *Aventuras de Simbad el terreno* nobela bikainak mundu arabiar-pertsiarari eta honek Argien Mendean Frantzian sortarazi zuen lilurari buruzko galderak eragin zizkidan; eta José Martí kubatarrak egokitutako Andersenen ipuin baten alderaketaren bidez murgildu nintzen Txinatar Inperioan. Guztiak garamatza denera. Irakurketa horiek, behinolako garaietara naramatenek, Islama eta Mendebaldearen arteko egungo arazoari buruzko argia ematen didate (nire *Dictionnaire de l'Islam*-ek oso higituak ditu orriak), eta aljeriar, tunisiar, israeldar edo palestinar... jatorriko auzoekiko beste begirada bat izaten uzten didate.

Beti dago, liburuei esker, bete beharreko hutsuneren bat, argitu beharreko gaizkiulerturen bat; eta hutsune eta sasi ziurtasun horietan kokatu ohi dira gizakia hainbeste ekintza ergel, gorrotagarri edo kriminaletara daramaten estereotipo eta aurreiritziak.

Baina ez dut horrenbeste liburu irakurri ohiko bibliografiatan «kulturartekotzat» jotzen diren horietatik.

Javi: Honi dagokionez, beste norabide batean doan liburu baten kasua aipatu nahi nuke. Hau da, Amélie Nothomben «Durduzaz eta dardaraz» (Igela, 2003). Liburu horretan Japonian jaioetako (eta japonieraz ondo mintzo den) neska europar batek Japoniako enpresa bateko egitura hierarkikoarekin topo egiten du. Eta beste kultura bateko emakume baten kontra, aldi berean. Eurozentrismotik aldentzeko aukera umoretsu eta zitala, aldi berean, egileak proposatzen diguna liburu apart horretan. Bide batez esanda, Nothomb anorexia gauditutako idazlea omen da.



1. «A la rencontre de deux cultures, les romanciers beurs», par Alec G. Hargreaves. *La revue des livres pour enfants*. Paris, 1990eko udazkena.